
**< Estella/Lizarrako
Aukera Berdintasuneko**

II. Plana >



**Ayuntamiento de Estella
Lizarrako udala**

2005eko urria

Aukera Berdintasuneko Aholkularitza Aecuo

consultoriadeigualdad@aecuo.com

Tfnoak. 686 642 004 / 635 636 676

www.aecuo.com / www.tierrademujeres.com

Gidoia

1. II. Planaren aurkezpena.

- Alkatearen eskutitza.
- Zinegotziaren eskutitza.
- Planaren sarrera.

2. Eremu teorikoa.

- Aipamenak.
- Oinarritzea.

3. Lizarrako I. Berdintasuneko Planaren Ebaluazioa.

4. II. Planaren ezaugarriak.

- Egitura.
- Iraupena.

5. Helburu komunak arlo guztietan.

- Genero-zeharkakotasuna eremu guztietan.
- Helburuak.

6. Jarduteko eremuak.

- Emakume eta Berdintasun Batzordea.
- Zerbitzu Orokorrak.
- Enplegua.
- Hezkuntza.
- Kirola.
- Kultura eta Euskara.

- Osasuna.
- Ingurumena.
- Gizarte Zerbitzuak.
- Hirigintza.
- Herri-babesa.
- Gazteria.
- Hazienda.

7. Ebaluazioa eta jarraipena.

FOTO (Utilizar fotografías de los concursos de fotografía de Igualdad).

***Emakumeen aurrerapena
eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea
giza eskubideen auzia dira
eta baldintza bat justizia sozialerako
eta ezin zaie banaka aurre egin
emekumezkoen arazoa balitz bezala.
Bakar-bakarrik helburu horiek lortuta
ezarri ahalko da
gizarte bat zuzena eta garatua.***

Eragiteko Plataforma

Emakumearen gaineko IV. Mundu-Konferentzia 1995

41 Paragrafoa

1.

II. Planaren Aurkezpena.

- ❖ Carta de la Alcaldesa.
- ❖ Carta del Concejal.



Sarrera II. Planari.

Herritarren artean Benetako Aukera Berdintasuneko printzipioaren bilaketa eta lorpena administrazio publiko guztien oinarritzko konpromisoa da, bai tokikoak, bai autonomikoak, estatukoak edo europakoak.

Edozein arduradunek, politikaria zein teknikaria, Berdintasuna kontuan hartu behar du lan egiten duenean. Horretarako, Aukera Berdintasun Planak dira bere lanabesak. Plan horiekin lagundu ahal du legeak bildutako eta ezagututako eskubideren bat errealitate izan dadin bere komuniteko lagunen eguneroko bizitzan.

Gaur egungo emakumeen eskubideak eta garatu ditugun berdintsaun politikak lortzeko, ibilbide zaila, luzea eta korapilatsua ibili behar izan da; patriarkatuak, sistema bezala, bizirik irauten baitu planeta osoan.

Ibilbide hori emakume talde batzuek hasi zuten, zeinek, beren eskubideak eskatzean, erakunde publikoak sentsibilizatu baitzituzten aukera berdintasuna gure gizartean bultzatzen hasteko.

Hori dela eta, Lizarrako Hiriko Udalak jadanik 1997. urtean lekukoa hartu zuen Emakume eta Berdintasun Arloa martxan jarri zuenean eta Aukera Berdintasuneko Agentea kontratatzean, Berdintasuna udaletxetik bultzatzeko eta lan egiteko.

1998ko uztailaren 2an Aukera Berdintasuneko I. Plana onartu zen. Plan hori egiteko hiriko emakumeen talde ezberdinek parte hartu zuten Udaleko Emakume eta Berdintasun Batzordeak bideratuta. Gainera batzorde horrek ardura hartu du aipatu Plana betetzen dela ziurtatzeko indarrean egon den bitartean.

Aukera Berdintasuneko Planak dira erakunde baten orientazio politikako tresnak genero ikuspuntutik jarduteko. Helburua da baldintzak bultzatzea emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izan dadila burutzeko. Helburuak eta ekintzak dituzte, eta horiekin diskriminazioa ezabatu edo saihestu nahi da edota desabantailak konpentsatu, orain dauden jarreretan, portaeretan eta egituretan oinarri dutenak.

Lizarra hiriko II. Berdintasuneko Plana jaio da udal-zaletasun berdinarekin eta sendotzen du, Emakume eta Berdintasun Batzordeak berriz ere ematen dituen ekarpenen bidez, emakume taldeen parte hartzea eta Udal beraren arduradun politikoena eta teknikariena.

Aurreko Planaren Ebaluazioan erdietsitako emaitzetan oinarritzen da. Aipatu ebaluazioak balio izan zuen buruturiko helburuak eta ekimenak ikertzeko, baita izandako emaitzak eta sortu duen eragina herriko emakumeen eta gizonen arteko harremanetan. Baita ere I. Planaren puntu ahulak erakutsi zituen, horiek egokitu ahal izateko II. Berdintasuneko Plana egiteko orduan.

Hiriko berdintasun arloan eman diren aurrerapenek, bai udal mailan, baita hiritarren artean ere, eta ebaluazioan bildu direnak, erakutsi zuten berdintasunerantz doan lehenbiziko etapa Lizarra hiriak burutu duela eta, horren ondorioz, udala prest zegoela jauzi nabarmena aurrera emateko, *Mainstreaming* edo *transversalidad de genero* II berdintasuneko planean sartzeko eta horrekin batera aukera berdintasuna hiriko bizitzaren arlo guztietan.

Jakin badakigu urrats zaila dela baina baita ere Lizarrako udaleko erakunde hau, I. planean eginiko lana dela eta, aurrera eramateko moduan dagoela, horretarako baliabide politikoak zein teknikoak baititu. Lan hori bideratzeko Lizarrako II. aukera berdintasuneko plana izanen dute, jarduteko tresna estrategikoa giza eskubide hori benetan lortzeko.

Baita ere nabarmendu nahi dugu, zenbait arloetan udal esparruari ihes egiten zaizkion eskumenak egon arren, abiatzen garela udal erakunde honek duen protagonismo nagusitik gainontzeko administrazioei eta erakundeei transmititzeko ordezkatzeko dituen hiritarren beharrak. Hori dela eta enplegu edo hezkuntza arloetan zenbait helburu lan egiteko orduan, Udalak beharko du beste erakunde batzuen laguntza.

2005eko urriaren 27an eginiko osoko bilkuran Lizarrako Hiriko II. Berdintasuneko Plana onetsi egin zen.

Plan honen helburuak abiatzen dira genero ikuspuntua txertatzera udal bizitzan eragina duten politika, neurri eta ekimen guztietan eta Lizarrako gizartearen parte-hartzea handitzera, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunaren eskubidea bultzatzeko eta lortzeko.

2. Eremu teorikoa.

❖ Aipamenak.

XX. mendeko bigarren erdialdean barna poliki-poliki Aukera Berdintasuneko printzipioa sartu da nazioarteko erakunde ezberdinetan eta tresna ezberdinak garatu dira, aukera eman digutenak lan egiteko eskubide hau lortzeko lanetan.

1945eko Nazio Batuen Gutuneko hitzaurreak Aukera Berdintasuna lehentasunezko helburutzat hartzen du humanitateak dituen oinarritzko eskubideen artean.

Une horretatik aitzina, NBEak deitu dituen Konferentzia eta Gailur guztiak plataforma izan dira emakumeen eskubide berdintasunaren beharra berresteko, agirien, aholkuen eta praktiken bidez, eta horrekin gobernuetako konpromisoak lortu dira generoaren ez diskriminazioaren alde.

1975 urtea emakumeen Nazioarteko Urtea izendatu zen, eta horrela Mundu mailako Konferentzia sorta bat hasi zen: Mexiko Hiria 1975, Kopenhage 1980, Nairobi 1985 eta Pekin 1995.

Geroago NBEaren Batzar Orokorreko Bilkura Berezia egin zen ondoko izenburuarekin: *"Emakumea 2000: Genero Berdintasuna, Garapena eta*

Bakea Hogitabatgarren Menderako” New Yorken Pekin+5 izendatuta eta han ere, 2005 urte honetan, Pekin+10 egin da, hauxe baita Beijingeko Jarduteko Plataformaren 10 urteetako berrazterketa eta ebaluazioa, NBEaren Emakumearen Maila Juridikoa eta Soziala Batzordeak egin duena.

Bilkura berezi honetan deklarazio bat onetsi zen, horretan duela 10 urtetako gailurrean hartutako konpromisoak berretsi ziren, emakumeen baldintzak eta funtzioa mundu mailan aldaketa garrantzitsuak izan badituzten ere, erritmoa ez da berdina izan eskualde guztietan. Gainera oraindik ere tarte handi bat irauten du politiken eta genero berdintasuna bultzatzeko praktiken artean.

Gainera, 1979an Nazio Batuen Konbentzioa onetsi zen Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztien ezabapenari buruzkoa, honetan oso garbi ezartzen da emakumeen giza eskubideek barne hartzen dituztela gizarte bat osatzen dituzten eskubide zibil, ekonomiko, sozial eta kultural guztiak.

Europar Batasunari dagokionez, jadanik Eratzeko Itunean, 1957an Erroman sinatu zena, bere estatu kideei behartzen zitzairen lansari berdinen printzipioa aplikatzera langile guztiei, emakumeak zein gizonak, lan berdina egiteagatik.

1974tik aitzina, Gizarte Ekintzaren Programa onetsi ondoren, berdintasunaren printzipioaren aplikazio-eremua Europako Ekonomia Erkidegoan hedatuz joan zen arautegi zabala garatzearen bidez, arautegia zeinak arteztarauak, ebazpenak, erabakiak, gomendioak,... hartzen baitzituen.

1997 urtean Amsterdamgo Ituna sinatu zen. Itun honek, berdintasuna enpleguan neurrietarako arautegi-oinarri berria ezartzeaz gain, *Transversalidad*-a edo *Mainstreaming*-a ere sartu zuen, lanabesa baita aukera berdintasuneko dimentsioa sartu ahal izateko, baita genero-ikuspegia deitutakoa ere, politika orokor guztietan.

Europako Erkidegoko lehenbiziko Ekintzaren Programa emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako 1982an martxan jarri zen eta gaur egun V. Programa indarrean dago (2001-2005).

Gaurko programaren helburuak ondokoak dira: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarritzen den baloreak eta praktikak bultzatu eta zabaltu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten arazoan ulermena hobetu eta gizarte agenteen gaitasuna indartu berdintasuna eraginkortasunez bultzatzeko, bereziki informazioa eta praktika onak sustatuz eta komunitate mailan sareak ezarriz.

Gainera, Europear Batasunak ekimen espezifikoak abiarazi ditu, eta horien artean nabarmenak dira: NOW (1991-1999) DAPHNE eta STOP, indarkeriaren aurkako programak; SOCRATES, hezkuntza; LEONARDO DA VINCI, Lanbide Heziketa; eta gaur egun EQUAL, enplegu programak; VI. ESPARRU-PROGRAMA, ikerketa eta garapen teknologikoa;...

Espaniako Estatuan, aldaketak askoz ere motelagoak izan dira. Industrializazio eta modernizazio prozesua Europako iparreko herriena baino geroago burutu zen eta diktadura frankistaren urteak atzerakada izan ziren Espainiako II Errepublikan emakumeen eskubideentzat suposatu zuen aurrerapausua gertatu ondoren.

Demokrazia parlamentarioa eta 1978ko Konstituzioa heltzean oinarri legala sortzen da emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasunerako. 9.2. eta 14. artikuluek askatasuna eta eskubide berdintasuna ezarri zituzten pertsona guztientzat edozein sexua izanda ere, eta halaber, administrazio publikoko betekizuna beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan genero diskriminazioekin bukatzeko.

Emakumeen egoerak izan duen aurrerapena denbora guzti honetan ikusgarria izan da. Lorpen erabakigarriak eskuratu dira lege-eremuan eta lan-, politika-, ekonomia-, kultura-munduan, e.a. Hala ere, lorturiko eskubideen berdintasuna eskuratu bada ere, benetako berdintasuna oraindik oso urrun dago.

Bi sexuen arteko lagunen egiazko berdintasuna zaintzeko eta bultzatzeko, 1983an Emakumearen Institutua sortzen da erakunde autonomoaren izaerarekin, gaur egun Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeriora adskribatuta. Une hauetan emakumeen arteko Aukera Berdintasuneko IV. Plana ezartzen ari da, 2003 urtetik 2005 urtea arte hartzen duena.

Baita ere, 2004 urtean barna, *Genero indarkeriaren aurkako erabateko babes neurrien Lege organikoa* onetsi zen, testu horretan aztertzen dira bai laguntzako neurriak bai prebentzioarenak, arreta berezia jarritz berdintasunean eta emakumearen eskubideen errespetuan tematzen diren heziketa-politikan.

Legeak jurisdikzio berezia ezartzen du genero indarkeriarako eta prozesuan zerikusia duten agente guztien koordinazio estua lortu nahi du (Estatuko segurtasuneko indar eta kidegoak, fiskalak, Auzitegiko medikuak, psikologoak, magistratuak, e.a.), guzti hauek berriazko heziketa jaso

behar dute, biktimak uneoro arlo honetan adituak diren lagunek zain ditzaten.

Baita ere, Konstituzioak Autonomia Erkidegoei ematen die legegintzako gaitasuna eta ekimen politikoaren gaitasuna ere Berdintasuneko Autonomia Planak gauzatzeko, beraien Berdintasuneko Erakundeek bultzatuko dituztenak. Halaber, udal esparruan, Toki Administrazioek eskumena dute beren Berdintasun Planak onesteko eta gauzatzeko.

Foru Komunitate honetan Emakumearen Institutuak 1995 urtean hasi zuen bere jarduna. Nabarmena da, horren eginkizunen artean, programak garatzearena, Berdintasunaren aldekoak, Foru Gobernuko jardueretan integratuta, emakumearekiko diskriminazioak ezabatzerazuzenduriko neurriak bultzatzen dituztenak eta hezkuntza, lan, osasun, sozial eta politika arloetan eragina izanen duten proiektuak egitea sustatzen dutenak.

2002ko uztailaren 2an Nafarroan 22/2002 Foru Legea onetsi zen, neurri orokorrak hartzeko sexu-indarkeriaren aurka. Izenak adierazten duen bezala, Lege Integrala da, hots, prebentzioa eta indarkeria errotik kentzea hartzen du arlo guztietatik. Bere testuak neurriak islatzen ditu honako arlo hauetan: hezkuntza, publizitatea, gizarte sentsibilizazioa, prebentzioa, eta sexu-indarkeriaren biktimei laguntza, prebentzioa edota indarkeria bera errotik kentzen lan egiten duten langile guztiak hezitzen.

2002ko azaroaren 28an 33/2002 Foru Legea onetsi zen emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasuna sustatzekoa, eta aipatu Legearen helburuak honakoak dira:

- Administrazioaren estamentu guztiak sentsibilizatu genero berdintasunaren gaian.

- Nafarroako gizartea sentsibilizatu genero berdintasunaren gaian.

- Genero ikuspegia sartu Administrazioaren jardura guztietan.

- Nafarroako ordenamendu juridikoa egokitu nazioarteko esparruetatik etorri diren arautegi ezberdinei emakumeen eta gizonen aukera berdintasuneko gaitan.

- Berdintasun gaitan dagoen legeria eta jurisprudentzia aztertu eta zabaldu.

Herri mailan, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren (FEMP) VIII Batzar Orokorreko Ebazpenek, 2003ko azaroarenak, bildu zuten tratu berdina eta aukera berdintasuna oinarritzko printzipioak direla eta lehentasuneko arloa Toki Administrazioan. Hori guztia erakunde horrek bera gain hartu du, Emakume eta Berdintasun Batzordea sortu denetik, erakundearen barnean.

FEMPrako toki-maila da esparrua non Planak eta Programak gauzatzen diren, hots, honako helburuak dituzten planak: pertsonen arteko tratu eta aukera Berdintasuna, indarkeriaren aurkako borroka, generoa dela eta diskriminazioa eta gizarteko bazterkeria, hiri-eremuak eraikitzea gaur egungo emakumeen beharrekin bat datozenak.

Baita ere parte hartze politikorako eta sozialerako bide berriak zabaltzen dira adin guztietako eta leku guztietako emakumeentzat, eta

guzti hori gai honetan sarturik dauden administrazioen eta arloen nahitaezko koordinazioaren eta kooperazioaren bidez.

FEMP erakundeak jarraitu nahi du eskumena baliatzeak eskatzen Tokiko Korporazioentzat, dagokien ekonomia- eta giza-baliabideen hornidurarekin batera, gizarte berdinagoaren alde, jakin badakielako funtsezko faktorea dela garapenerako eta bakerako XXI. mendean.

Erakunde guzti hauek eta aipatutako neurriek lagundu dute berdintasunarekin zerikusia duten lorpenak sendotzen, diskriminazioaren aurka borrokatzeko mekanismoak sortzen eta eskubide honen alde lan egiteko helburu eta ikuspuntu garbiak eusten.

Lizarrako Udalak, arestian seinalaturiko erakunde guzti horiekin batera, II. Aukera Berdintasuneko Plana bultzatzen du hiri honetako emakumeentzat eta gizonentzat.

❖ **Oinarritzea.**

Aurreko azalpena eman ondoren Aukera-Berdintasuneko printzipioa lortzeko lan egiten duten erakunde guztiei buruzkoa, galdera bat geratzen da egiteko: Zergatik, orduan, oraindik ez da Benetako Genero Berdintasuna lortu?

Europako Kontseiluaren 1998ko txostenaren arabera *“Genero Mainstreaming-a. Kontzeptu-esparrua, metodologia eta praktika onen aurkezpena”* arazo nagusia da erabili den berdintasunaren definizioa izan dela oso definizio mugatua eta diskriminazioaren aurkako babesa ez dela behar bezala lagundu.

Honakoa gaineratzen du: *berdintasunaren makineriak gehienetan isolaturik egon dira, laborategi bikainak badira ere, horietan genero gaiei buruzko jakintza bikainak egin eta bildu egiten baitira.*

Nahiz eta berdintasun-baliabideak esleitu diren, zenbait herritan, ministerio garrantzitsuetan, eragin-maila eta eskumen mugatuak izan dituzte, ondoriorik izan gabe pertsonengan eragin gehien duten esparru politikoetan, horregatik aukera berdintasuneko neurriek apenas bideratu ahal izan zituzten beste jarduera politikoek eragindako desorekak.

Baita ere txosten horrek aipatzen du gaur egun emakumeek pairatzen duten egoera ahula erabakiak hartzeko orduan.

Eta, azkenik, erabilitako metodoei dagokionez ondokoa adierazten dute: *politika publiko gehienak esparru honetan emakumeengana zuzendu dira eta ez gizonengana, baita sexuen arteko desorekekin zerikusia dutenak ere. Argi dago aldaketa mugatuak izanen direla bakarrik problemaren alde batera zuzentzen badira.*

Beharrezkoa da, beraz, genero ikuspegia politika publiko guztietan txertatuko duen estrategia bat eta, era berean, gizarte osoko inplikazioa bultzatuko duena berdintasunaren sustapenean.

Diskriminazioaren aurkako benetako kultura eta gizartearen adostasuna gai honen inguruan ez dagoen bitartean, estrategia hau neurri espezifikoez osatu beharko dute, esaterako: Ekintza Positiboak edota Berdintasun Planak, orain arte garatu izan den antzera.

Azken finean, emakumeen eta gizonen Benetako berdintasunaren erronka Lizarran lortzea, herritar guztien konpromisoaren baitan dago eta baita kontzientzia hartzean ere hori lortzea suposatzen duela gure gizartearen aurrerapen orokorra.

3. Lizarrako Aukera Berdintasuneko I. Planaren Ebaluazioa.

Lizarrako Aukera Berdintasuneko I. Planaren ebaluazioa tresna eraginkorra bilakatu da herri honetan lan egiteko genero ezberdintasunak murriztearen alde.

Planak bilatu du herriko emakumeen eta gizonen aldaketak, aurrerapenak eta gabeziak ikustea, Aukera Berdintasunarekin zerikusia dutenak, eta hurrengo Planaren arlo bakoitzeko helburuetan eta jardueretan sartu ditu.

Plana egitean hiru jarduera ezberdin burutu dira:

a. Implementazioaren ebaluazioa:

Inplementazioaren ebaluazioak ondoko helburu orokorrak izan ditu: Udaletik gauzatu diren jarduera guztiak ikertzea Plana praktikan jartzeko, burututako jardueren eta agiri horretan bildutako helburuen arteko egokitasuna egiaztatzea, eta guzti horren betetze-maila.

Implementazioaren ebaluazioak erabilitako informazioa, Lizarrako Udaleko Emakume eta berdintasun arloak jarri duen berezko dokumentaziotik atera da.

Eginiko jardueretan oinarritu da eta Udaleko politikari eta teknikari arduradunei egin diegun elkarrizketetan bildutako informazioaren zati batean.

b. Eraitzen ebaluazioa:

Eraitzen ebaluazioak du helburutzat aldaketak erakustea, Planaren betetze denboran zehar gertatu direnak, bai udal erakundearen barnean, bai herritarren artean.

Udaleko politikari eta teknikariei elkarrizketak egin zitzaizkien egiaztatzeko Planaren helburuen ezagutza-maila eta arlo ezberdinen koordinazioa Emakume eta Berdintasun Arloarekin, halaber, beste talde profesionalei, komunikabideena, abokatutza, osasun-zerbitzuak,...

Azken urteotan herritarrengan gertatu diren aldaketei dagokionez, 4 eztabaida-talde egiten ditugu: gazteria, emakume ijitoak, emakumeen asanblada eta gurasoen elkarteak.

c. Eraginaren ebaluazioa.

Ebaluazio honek honako helburak ditu: harreman pertsonaletan sortutako eragina neurtzea eta Planaren puntu ahulak seinalatzea, jarduerak egokitzeko II. Berdintasun Plana prestatzeari begira. Ebaluazio horretan inkesta bat egin zaio biztanleriari, emakumeen eta gizonen arteko aldaketak, aurrerapenak eta gabeziak ikustarazteko Aukera Berdintasunari dagokionez Planaren iraunaldiaren ondoren.

Hiruretan kontutan hartu zen jarduera guztien balorazio bat eta I. Planako helburuen betetze-maila.

□ **Ebaluazioaren ondorioak Lizarrako I. Aukera Berdintasuneko Planean.**

Emakume eta Berdintasun Arlotik landu dira zegokion helburu gehienak, baita gainontzeko udal-arloen beste batzuk ere. 1998tik 2003ra garaturiko helburuak, jarduerak eta ekintzak etengabeak izan dira, eta horrela erraztu da landutako helburuak oihartzuna izatea hartzaileengan.

Berdintasun Plana garatzeko eginiko jardueretan parte harte duten emakumeen taldeetan aldaketak eta onurak gertatu dira, eztabaida-taldeetan parte hartu duten lagunen ekarpenetan islatu den moduan.

Emakume eta Berdintasun Batzordea sendotu da eztabaida-lekurako, eta leku hau aberastuz joanen da gazteak eta gutxiengo taldeetako jendea bertan pixkanaka sartuko direnean.

Dokumentazio sistematizazioaren ezean Emakume eta Berdintasun Arloko ekipamendu informatikoan gertatu zen arazo tekniko bat zela eta, ezin izan ditugu jardueretako parte-hartzaileen datu guztiak eskuratu sexuka, eta horregatik zailtasunak izan ditugu ezagutzeko jardueren eragin-maila herritarrengan.

Plana egon badagoela Udaleko pertsonal teknikoak orokorrean badakien ere, bakoitzari egin zitzaion elkarrizketetan antzeman den moduan, ezagutza-maila hau txikiagoa da politikarien artean. Gainera, aipatu bi horien parte-hartze handiagoa beharrezkoa da helburuak eta beren jarduera-esparruei dagozkien ekitaldiak ezagutzean.

Inkesta erantzun zuten lagunen zati esanguratsu batek adierazi zuen agiria berez ez zuela ezagutzen, baina bai, ezagutzen zituztela Emakumearen Zinegotzigoetik egiten diren ekitaldiak.

Emakume eta Berdintasun Arloak bultzaturiko jardueretan egindako kolaborazioetan izan ezik, noizean behin Planaren helburuak landu dira gainerako udal arloen aldetik.

Herritarren artean kezka antzematen da emakumeen aurkako indarkeria dela eta, Emakume eta Berdintasun Arloak urtero antolatzen dituen sentsibilizazio kanpainei esker eta arlo honetan egiten duen eguneroko lanaren emaitza izanik.

Herritarrek hautematen dute, inkestetan eta eztabaida-taldeetan biltzen den bezala, emakumeen eta gizonen ezberdintasunek segitzen dutela, soldatekin, lana bilatzeko edota lanean igotzeko..., kontziliazioa...

Era berean sinesmena badago ere nahiko gizarte berdinean bizi garela pentsatzeko, hots, emakume batzuek diskriminazioak handitzen dituztela.

Hezkidetzaren balorazioa urria da, pentsatzen baita dena egina dagoela eskola mistoa izateagatik.

Azken buruan, Lizarrako populazioak jakin badaki jarduera ugari egiten dela Emakumearen Zinegotzigoetik eta adierazten du beharrezkoa izanen zela giza baliabide eta ekonomiko gehiagoekin hornitzea, herritar guztientzat egiten duen sentsibilizazio lana zabaltzeko.

▣ *Proposaturiko jarduteko arloak:*

- Herritarrak sentsibilizatzea Aukera Berdintasunean.
- *Transversalitatea* lan egitea udal politiketan.
- Emakumeen parte-hartzea erraztea boterearen eta erabakiak hartzeko esparruetan.
- Gizonak zainketan eta erantzukidetasunean inplikaraztea.
- Indarkeriaren prebentzioa lantzea familiarik eta eskolatik.

- Emakumezkoen langabeziarekin bukatzeko arreta gehiago ematea eta lan egitea gaur egun enpresaburuengan dauden estereotipoak errotik ateratzeko eta kontziliazioaren alde.

4. II. Planaren Ezaugarriak.

➤ Egitura.

Plana, 13 Jarduteko Eremutan banatua da, I. Berdintasun Planan agertzen zirenak eta oraingokoak desberdinak dira, urte hauetan barna udalaren barne antolaketa aldatu baita. Honako hauek dira: Emakume eta Berdintasuna Batzordea, Zerbitzu Orokorrak, Lana, Hezkuntza, Kirola, Kultura eta Euskara, Osasuna, Ingurumena, Gizarte Zerbitzuak, Hirigintza, Herritarrak Babesteko Atala, Gazteria eta Hazienda.

Arloetako diseinuari dagokionez, guztiek berdina jarraitzen dute:

- Arlo bakoitzeko helburuak.
- Ekitaldiak helburuak lantzeko.
- Arlo arduradunak eta inplikatuak martxan jartzeko.

Azpimarratzea helburu estrategiko bat badagoela eta helburu orokor batzuk II Berdintasun Planaren jarduteko arlo guztientzat genero-*transversalidad*-ea edo Mainstreaming -a ezartzeko asmoz, Lizarrako Udalak burutuko dituen politika guztietan.

Bukatzeko, Ebaluazio, Jarraipen eta Martxan jartzeko metodoa ezarri da.

➤ **Puntu estrategikoak.**

Berdintasuneko II. Plan honetan dauden helburuak inspiraturik daude puntu nagusietan berdintasunerantz aurrera egiteko, 1995eko Pekingo IV. Mundu-Konferentzian bildu zirenak eta Europear Batasuneko politika ezberdinetan.

● **Aukera Berdintasuneko printzipioaren *Mainstreaming*-a edo *Transversalidad*-ea politika publiko guztietan.**

Aukera berdintasuneko politika espezifikoak politika orokorretan sartzea da helburua, hortaz emakumeen eta gizonen Berdintasuna lortzea politika publiko guztietako helburu nagusia izatera igarotzen baita.

Politika orokorretan sartze horrek era berri bat behar du gestio administratiboaren prozesu politiko eta teknikoak antolatzeke, garatzeko eta ebaluatzeke, horrela genero-ikuspegia maila guztietan sartzeko eta

jarduteko etapa guztietan, prozesu hauetan sarturik dauden lagun guztien erantzukizunapean.

- **Emakumeen parte-harze handiagoa politikan eta erantzukizun mailetan: jabekuntza.**

Genero-ezberdintasunak mugatzen ditu emakumeen eta gizonen arteko harremanak. "Naturalizat" hartu da emakumeen gutxiagotasun hori, baina gertakari sozial bat da eta horregatik alda daitekeena.

Gure gizarteak emakumeak kokatzen dituen menpekotasun eta menderatze lekuaren aurka borrokatzeko, emakumeen jabekuntza beharrezkoa da, non emakume bakoitzak beharrezko gaitasuna garatuko baitu bere bizitzaren agintea hartzeko autonomiatik eta independentziaz.

Berdintasunezko gizarteak mekanismoak bultzatu eta garatu behar ditu emakumeen sarrera eremu guztietara erraztuko dutenak: politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala,...

- **Emakumeen aurkako edozein Indarkeria mota ezabatzea.**

Genero-indarkeria gizarteko egitura-arazoa da eta ez pribatua, edozein emakumeri erasan ahal diona, edozein gizarte- edo kultura-klasekoa izaten bada ere.

Gizarte-antolakuntza patriarkalaren ondorioa da, zeinak eginkizun oso zehatzak ematen baidizkien gizarte mota hau osatzen duten lagunei,

honetan batzuk menderatzen dute eta besteak daude menderatuak izateko, bertan harreman pertsonalak ez dira berdintasun printzipioan oinarritzen.

Botere publikoek neurri aringarri zein prebentiboekin jardun behar dute emakumeen aurkako indarkeriari heltzen diotenak ematen den era guztietan. Gizarte batek, benetan demokratikoa bada, ezin du onartu emakumeak indarkeria espezifikopean egotea, zeinak horien oinarritzko eskubideak erabat erabiltzea bortizki eragozten baitu.

- **Enplegua.**

Aukera Berdintasuna lan-eremuan ez da oraindik errealitate bat. Emakumezkoen langabeziak gizonezkoena bikoizten du, segregazio bertikala eta horizontala egon badago, kristalezko teilatua, emakumezkoen lanik eza oraindik ere oso handia da, prestakuntza eta lanpostu berdinetan soldata gutxiago kobratzen dugu, ...

Jarduerak eta programak egiten segitu behar dugu emakumearen parte-hartze handiagoa lortzeko lan-merkatuan berdintasun baldintzetan, hau aberastasun handiagoa suposatzen baitu gure gizarterako.

- **Lan-bizia, familia-bizia eta pertsonal-bizia adiskidetzea.**

Adiskidetzeaz hitz egiten dugunean esan nahi dugu lana, pertsonal-bizia eta familia-bizia bateragarriak egin behar direla.

Lanaren sexu-banaketa, gaur egun ere gure gizartean ematen dena, emakumeen esku uzten ditu oraindik haurrak hezitzeko, mendeko lagunak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ardura ia-ia bere osotasunean.

Guzti hori lan-hierarkizazioarekin batera doa. Balorazio sozial eta ekonomiko handiagoa dago produkzio-esparrukoei ematen zaiena, gizonei on egiten die, eta ugalketa-esparrukoei balorazio txikiagoa ematen zaie, emakumeak kaltetuz. Horrek berarekin ekartzen du sexuen arteko ezberdintasun agerikoa.

Emakumeen jardunaldi bikoitzarekin bukatu nahi badugu familia-bizia demokratizatu behar dugu, eta lortu behar dugu gizonek beren erantzukizuna hartzea etxean dauden lanen eta arduren berdintasunezko banaketan.

- **Hezkidetzak.**

1995ko Pekingo Konferentziak agerian jarri zuen munduan herrialderik ez dagoela non emakumeak benetako berdintasunean dauden gizonekin. Sexismoa txertatuta dago pertsonal-bizian eta gure gogoan, eta inor ez da ohartzen haurren heziketarekin zerikusia duten diskriminazio-alderdietaz.

Dagoen ezberdintasuna eztabaidan jartzeak bide berriak zabaltzea suposatzen du, sistema honen eraikuntza desegitea ahalbideratzen duena, geroago pertsona-eredu berria eraikitzeko, hedatu eta harantzago joanen dena, genero-estereotiporik gabe, lagun bakoitzari bere gaitasunak garatzeko aukera emanen diona, inolako bereizketarik gabe sexua dela eta.

Aldaketa sozial bat erdiesteko, gure seme-alabak mundu zuzenago eta solidariagoa batean bizitzeko aukera emanen diona, Aukera Berdintasunean hezitu behar ditugu.

➤ **Iraupena.**

4 urtetako iraupena aurreikusi da lan egin ahal izateko II. Berdintasun Plan honetan bildutako helburuak lortzen.

5. Helburu komunak arlo guztietan.

- **Helburu estrategikoa: *Mainstreaming*-a edota *genero-transversalidad*-ea arlo guztietan sartzea.**

Lizarrako Aukera Berdintasuneko II. Planak tresna bat izan nahi du *genero-transversalidad*dea bultzatzeko hiri honetako udal politiketan.

Europako Kontseiluak baldintza beharrezko batzuk identifikatu ditu aipatu *genero-transversalidad*dea errazteko:

- Borondate eta kopromiso politikoa beharrezkoa da emakumeen eta gizonen artean dauden desorekak gainditzeko, eta horiek sortzen dituzten arrazoiak ezabatzeko.

- Giza eta finantza-baliabide nahikoak beharrezkoak dira emaitza onak lortzeko.

□ Berdintasun politikak osatzen dituzten alde guztiak indartu behar dira: legegintza-neurriak, berdintasun-mekanismoak, Berdintasuneko berariazko jarduerak emakumeengana eta gizonengana.

□ Beharrezkoa da eguneroko genero-ikuspegia osatu behar dutenen prestakuntza.

□ Teknika eta lanabes egokiak behar dira *transversalidatearen* estrategia sartzeko.

□ Funtsezkoa da emakumeak politika-bizian eta erabakiak hartzeko orduan parte-hartzea, horien balore, interes eta esperientzia ezberdinak kontutan hartzen direla ziurtatzeko.

□ Aldaketak ere beharrezkoak dira prozeduretan, politika egiteko moduetan, antolakutzan eta kanal berrien sorreran elkartrukerako eta kooperaziorako.

Garrantzitsua da Administrazioa bera erreferentzi eredua izatea beste erakundeentzat Aukera Berdintasunari dagokionez

Administrazioan lan egiten duten emakumeak zein gizonak genero-ezberdintasunen aurrean sentikor izan daitezen eta lagun dezaten, horien lanarekin, ezberdintasunak gainditzen justizia soziala lortzeko sexu-bereizketarik gabe.

- **Helburu orokorrak udaleko arlo guztietan.**

HELBURU 1

Udal antolaketa guztiaren egitura nagusiak Aukera Berdintasuna oinarritzat izatea.

Jarduera 1.1 Aukera Berdintasunari buruzko sentsibilizazio kanpainak, adierazpenak, prestakuntza-ikastaroak, bandoak, ordenantzak, egitea, Lizarrako Udaleko udal egitura osatzen duen pertsonen konpromiso pertsonala eta kolektiboa bultzatuko eta berretsiko zituztenak.

HELBURU 2

Genero-ikuspegia udal politika guztietara aldatzea.

Jarduera 2.1 Aukera Berdintasuneko diagnostiko bat egin Arlo bakoitzeko pertsonal politikoarekin eta teknikoarekin, abiapuntua izanen dena urteko jardueren plangintza egiteko Planaren garapenean.

Jarduera 2.2 Arlo bakoitzetik urtero programatu Berdintasuneko II. Plana martxan jartzeko burutu behar diren jardueren plangintza, gestioa eta ebaluazioa, baita ere horiek egiteko bideratu behar diren baliabideak.

Jarduera 2.3 Prestakuntza- eta birziklatze-ikastaroak planifikatu Udaleko langilei zuzenduta, Aukera berdintasunean eta genero-ikuspegitik.

Jarduera 2.4 Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista Udaletxeko arlo guztietatik datozen dokumentazioan.

Jarduera 2.5 Gida bat egin edota beste material mota bat, Udaleko arlo guztietan hizkuntzaren erabilera ez sexita bultzatzeko.

Jarduera 2.6 Herritarrentzat zuzendutako jarduerak proposatu, dauden abiapuntu ezberdinak kontutan hartuz, baita ekintza hauek emakumeentzat eta gizonentzat dituzten ondorio ezberdinak ere.

Jarduera 2.7 Aukera Berdintasuneko printzipioa udaleko programa eta jarduera guztietan sartu, arlo guztietako helburu estrategikoa izateko.

HELBURU 3

Lizarrako herritarren bizi pertsonala, familiarra eta lan-bizia adiskidetzeko lagundu.

Jarduera 3.1. Arau berriak sortu zerbitzuetara heltzeko, familia-, pertsonal- eta lan-biziaren adiskidetzea erraztu eta ahalbideratuko dutenak.

Jarduera 3.2. Zainketa-zerbitzuen plangintza udal jarduetarako.

HELBURU 4

Aurreikusi eta errotik kendu emakumeen aurkako indarkeria.

Jarduera 4.1 Genero Indarkeriaren Aurkako Berariazko Plan bat egin.

ARLO ARDURADUNAK:

Emakume eta Berdintasun Batzordea, gainontzeko Udal Arloak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

6. Jarduteko eremuak.

6.A. EMAKUME ETA BERDINTASUN BATZORDEA

I. Berdintasun Planaren ondoan, non Emakume eta Berdintasun Arloa eta Emakume eta Berdintasun Batzordea sendotu baitziren, garaia heldu da aipatu bi atal hauek Lizarrako Udaleko berdintasun politiken bultzatzaile eta aholkularien papera bere gain hartzeko udaleko arlo guztietan, II. Berdintasun Plan honen genero-*transversalidadea* bermatzeko asmoz.

Transversalidadeak suposatzen du genero ikuspegia sartzea politika guztietan, programetan eta eremu publikoko arlo guztietatik burutzen diren jarduera guztietan, era honetan, azkenean, horren eragina eremu pribatura aldatuz.

Era berean, Emakume eta Berdintasun Batzordeak segituko du herritarrak berdintasunean sentibilizatzeko jardunean, emakumeen

elkartek bultzatuz eta horien arteko laguntza-sareak sortuz, baita ere pentsaera feminista eta genero-ikerketak hedatuz.

HELBURU A.1

Aukera Berdintasuneko printzipioaren *transversalidatea* zaintzea udaleko Arlo guztietan.

Jarduera A.1.1 Berdintasun politikak bultzatu eta berrikusi Lizarra Hiriko Udalean.

Jarduera A.1.2. Argibide-kanpaina bat egin plan berriaren ezaugarriei buruzkoa eta genero zeharkako planak suposatzen duen jauzi kualitatiboa.

Jarduera A.1.3. Prestakuntza eta aholkularitza gainerako udal arloetara eman, genero-ikuspegia horien jardueretan sartzeko moduari buruzkoa.

Jarduera A.1.4. Udaleko arlo ezberdinei genero-adierazleak eman beren urteko memorieta erabil ditzaten.

HELBURU A.2

Emakumeen kolektiboetarako prestakuntza eta parte-hartze soziala bultzatu.

Jarduera A.2.1. Urtero Emakumeen Foro bat egin gai zehatz bati buruzkoa, genero-ikuspegitik emakumeen errealitatearekin eta horien ekarpenekin zerikusia izanen duena.

Jarduera A.2.2. Urtero Emakume eta Berdintasun Batzorde berezi bat deitu, Lizarrako emakume gazteen beharretara eta eskaeretara zuzenduta.

Jarduera A.2.3. Emakume eta Berdintasun Batzordetik jarduerak programatu hiriko emakume gazteen onerako.

Jarduera A.2.4. Programak bultzatu problematika bereziak dituzten emakumeen taldeekin, eta talde horiekin lan egiten duten erakundeekin lankidetzan.

HELBURU A.3

Gizonak benetako berdintasunerantz doazen aurrerapausoetan sartu.

Jarduera A.3.1. Kanpainak antolatu gizonen inkorporazioa erakusteko emakumeek egin ohi dituzten lanetara, haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat erreferentzi ereduak izan daitezzen.

Jarduera A.3.2. Gizonen Elkarteak eta emakumeen eta gizonen Elkarte mistoak bultzatu, berdintasunaren aldekoak.

Jarduera A.3.3. Gizonei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu. Horietan islatuko dira gizonentzat zein galera suposatzen duen maskulinitate bat ezberdintasunean oinarrituta.

Jarduera A.3.4. Genero-ikuspegia jaietan eta ekitaldi sozialetan sartu, erantzukidetasuna eta biziaren arlo pribatura gizonezkoen inkorporazioa bultzatuz.

Jarduera A.3.5. Aukera Berdintasuneko Prestakuntza genero-bereizkeriari sentikorrek diren gizonentzat, horrela geroago horiek beste gizon batzuk sentsibiliza ditzaten.

HELBURU A.4

Aukera Berdintasuna bultzatu emakume arbuatuen taldeentzat edo baztertze-arriskuan daudenentzat.

Jarduera A.4.1. Prestakuntza genero-ikuspegiarekin eskualdeko enpresek eskatzen dituzten lanbideetan edota lanpostuetan, tutoretzarekin, segmentu eta enplegu-konpromisoarekin, haurtzaindegiz-zerbitzua eta zainketa menpeko-lagunentzat emanaz prestakuntza irauten duen bitartean.

Jarduera A.4.2. Prestakuntza jabeakuntzan, eguneroko bizitza eta lan-merkatua hobeto txertatzeko asmoz.

Jarduera A.4.3. Lehentasun-sistema ezarri kolektibo horientzat, dirulaguntzak, adiskidetze-baliabideak, prestakuntza... hartzeko orduan.

HELBURU A.5

Aukera Berdintasuna bultzatu emakume minusbaliatuen taldeentzat.

Jarduera A.5.1. Herritarrak sensibilizatzeko kanpainak egin, emakumeek pairatzen duten diskriminazio bikoitzari buruzkoak, emakumeak izateagatik eta minusbaliatuak, horien era askotako identitateak ikusitaraziz.

Jarduera A.5.2. Lagun minusbaliatuen taldeekin lan egiten duten erakundeak lagundu, genero ikuspegia ematen garatzen dituzten proiektuetan.

Jarduera A.5.3. Emakume hauek lanean txertatzeko lagundu, lehentasun sistema bat ezarriz horien prestakuntzarako eta lanean jartzeko.

HELBURU A.6

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak agerian utzi.

Jarduera A.6.1. Sentsibilizazio kanpainak antolatu, oraindik dauden emakumeen eta gizonen ezberberdintasunak erakustera zuzenduta.

HELBURU A.7

Emakumeen jabekuntza bultzatu.

Jarduera A.7.1. Ikastaroak eta tailerrak antolatu trebetasunak eta antolatze eta pertsonal gaitasunak garatzeko, Lizarrako emakumeei zuzenduta.

ARLO ARDURADUNAK:

Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK: Udaleko Arlo guztiak, Hazienda, Zerbitzu Orokorrak.

B. ZERBITZU OROKORRAK ARLOA

Genero *transversalitatea*, 1997an Amsterdamgo Tratatuan ezarrita, emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasuneko printzipioaren transposizioa ekarri zuen berekin udaleko politika eta jarduera guztietan.

Transversalitateak behar du, arestian adierazi den bezala, administrazio-kudeaketaren prozesu politikoak eta teknikoak antolatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko era berri bat. Hortaz, genero ikuspegia behar du udal jardueraren maila guztietan eta etapa guztietan.

Baita ere, Udala bere osotasunean erreferentzia eredia izan behar du, praktika onen eredia administratzen eta ordezkatzeko dituen herritar guztientzat.

HELBURU B.1

Zerbitzu Orokorretako arloak Aukera Berdintasuna oinarritzat har dezala lortu.

Jarduera B.1.1. Aukera berdintasunari buruzko sentsibilizazio kanpainak eta prestakuntza-ikastaroak egin, Lizarrako Udaleko arlo hau osatzen duten lagunen konpromiso kolektiboa eta indibiduala bultzatzeko eta berresteko.

ARLO ARDURADUNAK:

Zerbitzu Orokorrak, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

HELBURU B.2

Genero-ikuspegia aplikatu Arlo honek burutzen dituen jarduera guztietan.

Jarduera B.2.1. Arlo honetako langileak hezi Aukera Berdintasunean.

Jarduera B.2.2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista Arlo honetan egiten den dokumentazioan.

Jarduera B.2.3. Gida bat edota beste material mota batzuk prestatu arlo honetan hizkuntza ez sexista erabiltzeko.

Jarduera B.2.4. Genero aldagarria ezarri bai Udalak, bai bere mendeko Erakundeek, enpresak, elkarteak, e.a. egiten dituzten ikerketa eta txosten guztietan.

ARLO ARDURADUNAK:

Zerbitzu Orokorrak, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

HELBURU B.3

Politika aktiboa garatzea, aukera berdintasuneko printzipioa oinarritzat hartuko duena, Lizarrako Udaleko langileak kontratatzeko, prestatzeko eta sustatzeko.

Jarduera B.3.1. Ikerketa bat egin emakumearen presentziari buruzkoa erantzukizun-maila ezberdinetan, bai Udaletxean, bai udal zerbitzuetan baita enpresa subkontratatuetan ere.

Jarduera B.3.2. Langileen hautaketa eta sustapena bultzatu Aukera berdintasunean oinarrituta, erantzukizun eta erabakiak hartzeko lanpostuetan parte hartze orekatua bultzatuz.

Jarduera B.3.3. Lizarrako Udaleko negoziazio kolektiboan aukera berdintasuneko printzipioa sartu, baita ere *laneko Sexu-jazarpenaren* irudia eta *Haurdunaldiaren bitarteko arriskuaren* arautze zehatza.

ARLO ARDURADUNAK:

Zerbitzu Orokorrak, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUA:

Hazienda.

C. LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU ARLOA

Oraindik ere egiaztatu daiteke emakumeek bereizkeriak jarraitzen dutela pairatzen lan-munduan. Bai lanean sartzean, bai lanean jarraitzeko eta sustatzeko, ez dira berdintasun baldintzak ematen lan esparru publikoan, gizonei dagokionez.

Emakumeek nahi dute, eta eskubidea daukate, esparrua, denbora, funtsean, bizia partekatzeko. Horretarako esparru pribatuak eta zainketa ere partekatu behar dira.

Emakumeek eskubidea daukate erantzukizun esparruak betetzeko, erabakiak hartzeko, edozein lan-mota eta lanbide izanda ere. Baina horretarako gaur egun oraindik ere dauden estereotipoak mugiarazi behar dira.

Aukera Berdintasunak adierazten du emakumeei dagozkien Lan-Eskubideak gauzatzea, horien lana eta ahalmenak eta gaitasunak onartzea.

HELBURU C.1

Emakumeak lan-merkatuan sartzeko eta igotzeko dauden estereotipoak astindu.

Jarduera C.1.1. Sentsibilizazio kanpainak diseinatu genero-estereotipoak ezabatzea zuzenduta, bai emakumeen kontratazioari, bai sustatzeari dagokionez.

Jarduera C.1.2. Udalak garatuko du kontratazio eta sustapen politika bat bere langileentzat, Aukera Berdintasuneko printzipioarekin bat datorrena.

Jarduera C.1.3. Onarpen bat sortu bere Giza Baliabideak hobeto gestionatzen dituen Lizarrako enpresarentzat, Aukera Berdintasuneko printzipioan oinarrituta.

Jarduera C.1.4. Sentsibilizazio kanpainak diseinatu (jardunaldiak, tailerrak, dokumentazioa argitaratu ...) negozioazio kolektiboaren mahaietan eta lan-arriskuen prebentzioan genero ikuspegia sartzeko beharrari buruzkoa.

HELBURU C.2

Emakumezkoen jarduera-tasa handitu.

Jarduera C.2.1. Lanerako eta etengabeko prestakuntza planifikatu, emakumeek dituzten lan-beharren eta behar pertsonalen arabera.

Jarduera C.2.2. Ikerketak bultzatu eskualdeko enpresek egiten dituzten lan-eskaerei buruzkoak, beste erakundeekin elkarlanean: enpresa-erakundeak, sindikatuak edota NEZa.

Jarduera C.2.3. Eskualdeko enpresek eskatzen duten lanerako prestakuntza emakumeei erraztu, prestakuntza on line publikoa sustapenaren bidez, garraiorako laguntzak, hurbiltasun zerbitzuak,...

Jarduera C.2.4. Tailer Eskola eta Enplegu Tailerrak emakumeentzat bultzatu.

Jarduera C.2.5. Emakumeei zuzendutako prestakuntza-jarduerak planifikatu, emakumeen jabeakuntzaren aldekoak.

Jarduera C.2.6. Birziklajea bultzatu, denboraldi bat haurrak edota menpeko pertsonak zaintzen eman ondoren lan-merkatuan hasi nahi duten emakumeentzat.

Jarduera C.2.7. Udal zerbitzuak sortu formula ezberdinen bidez, lan-, familia- eta pertsonal-biziaren adiskidetzea lagunduko dutenak, esate baterako: ludotekak, eguneko zentroak, haurtzaindegiak, 0-3 urte zentroak, e.a.

HELBURU C.3

Emakumezkoen ezkutuko ekonomia murriztea

Jarduera C.3.1. Formula ezberdinak sortu zerbitzuetara heltzeko familia-, pertsonal-eta lan-bizia adiskidetzea errazten eta ahalbideratzen dituztenak.

Jarduera C.3.2. Enpresa sozialak sortzeko eta sendotzeko laguntza eman, mendeko pertsonak zaintzera, etxeetako zerbitzuak ematera... zuzentzen direnak.

HELBURU C.4

Gizonak konprometitu lan-, pertsonal- eta famili-biziaren adiskidetzeari.

Jarduera C.4.1. Sentsibilizazio kanpainak diseinatu herritarrak, eta gizonak bereziki, kontzientziatzeko adiskidetzea eragina duela pertsona guztiengan.

Jarduera C.4.2. Berdintasun eta erantzukidetasun tailerrak familietan egin.

Jarduera C.4.3. Eskualdeko enpresei informazioa eman sentsibilizazio kanpaina baten bidez, beste erakundeekin batera, adibidez: enpresa-elkarteekin, sindikatuekin, NEZ,... adiskidetzearekin lortzen diren onurei buruzkoa.

Jarduera C.4.4. Lan-, familia- eta pertsonal-bizia adiskidetzeko erraztasunak eman udal barneko lagun guztiei, jarduera publikoak, batzordeak, udalbatzak... barne.

HELBURU C.5

Udal baliabideak sortu eta sendotu lan-, familia- eta pertsonal-biziaren adiskidetzeari lagunduko dutenak.

Jarduera C.5.1. Adiskidetzeko sistema publikoa sortu (haurtzaindegiak, ludotekak, eguneko zentroak, 0-3 urte zentro publikoak...), lan-, familia- eta pertsonal-biziaren adiskidetzeari bultzatuko dutenak.

Jarduera C.5.2. Lankidetzaren hitzarmenak sinatu taldeekin, enprekin eta erakundeekin, adiskidetzeari zerbitzuak eskaini ahal dituztenak, esaterako: ludotekak, haurtzaindegi pribatuak, ikastetxeak, egoitzak, eguneko zentroak, hiritar-zentroak, kultur etxea...

HELBURU C.6

Emakumezkoen autoenplegua bultzatu, lan-motaren bat emakumeentzat izateko.

Jarduera C.6.1. Emakumezkoen autoenplegua bultzatu honako neurri hauen bidez: izapideak erraztu, laguntzak eta dirulaguntzak eman, hitzarmenak sinatu banku-erakundeekin mikrokredituak emateko, e.a.

Jarduera C.6.2. Emakumezkoen autoenplegua ikusarazteko publizitate-kanpainak, Lizarrako emakume enpresaburuak edota autonomoak protagonista direlarik, beste emakumeentzat erreferentzi-eredua izan daitezten.

ARLO ARDURADUNAK:

Lanerako Prestakuntza eta Enplegua, Emakume eta berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK

Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerbitzuak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

D. HEZKUNTZA ARLOA

Hurrek bereganatzen dituzten oinarrizko baloreak eta sinismenak ez ditu bakarrik familia transmititzen, baizik eta eskolak ere transmititzen dituela. Beraz, eskolak konpromisoa hartu behar du berdintasunezko heziketa irakasteko, neska eta mutilen ahalmenetan eta gaitasunetan oinarrituta, pertsonak baitira, horien sexua kontuan hartu gabe.

Horrek genero indarkeriari aurre egitea dakar berekin, sexuen arteko errespetua bultzatzea, ikasketen orientazioa pertsonaren gaitasunetan oinarrituta, neskeen jabeakuntza, sentimenduen adierazpena eta haurren zainketa eta gizonak konprometitzea beren umeen heziketan.

Hasieratik jarduten badugu, familiarik eta eskolatik, pertsona guztien artean lor dezakegu gizarte zuzenagoa eta berdinagoa.

HELBURU D.1

Emakumeen aurkako indarkeria saihestu sexuen arteko errespetuaren bidez eta gatazkak era baketsuan konponduz.

Jarduera D.1.1. Prestakuntza Plana egin irakasleei, ikastetxeetako zuzendariari, guraso elkartei eta ikasleei zuzenduta, berdintasunari eta erantzukizunari buruzkoa eta beste erakunde batzuekin elkarlanean.

Jarduera D.1.2. Gurasoen Eskola bat bultzatu, horretatik berdintasunezko hezkuntza laguntzeko, errespetuan eta pertsonen arteko bizikidetzaren baketsuan oinarrituta.

HELBURU D.2

Hezkuntza-sistemako arlo guztietan programazioa sartu, pertsona bakoitzeko ahalmenetan oinarrituta, beren sexua kontuan hartu gabe.

Jarduera D.2.1. Jabekuntza neska txikiengan eta nerabeengan bultzatu, halaber, sentimenduen adierazpena eta trebetasunak garatu, haurren eta nerabeen zainketarekin zerikusia dutenak.

Jarduera D.2.2. Eskola-orientazioa bultzatu ikasleen ahalmenetan oinarrituta, ez sexu-estereotipoetan.

HELBURU D.3

Gizonak haurren hezkuntzan sartu berdintasunetik eta erantzukidetasunetik.

Jarduera D.3.1. Sentsibilizazio kanpainak diseinatu familiako kide guztientzat haurren zainketaren erantzukidetasunak suposatzen dituen onurak nabarmentzeko.

Jarduera D.3.2. Berdintasun eta erantzukidetasun tailerrak antolatzea aitentzat.

ARLO ARDURADUNAK:

Hezkuntza, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Gizarte Zerbitzuak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

E. KIROL ARLOA

Kirol-eremua betidanik gizonek bete eta praktikatu egin ohi dute, bai kirola bera praktikatzean, bai kudeaketa eta teknika arloetan.

Gaur egun emakumeek, beste eremuetan bezala, beren parte-hartzea eta praktika handitu dute. Horrek ez du esan nahi neskek eta emakumeek erreferentzi-eredu asko dituztela, komunikabideek ez diotelako garrantzi bera ematen emakumezkoen kirol emanaldiei edota gizonek praktikaturakoei.

Horregatik arlo honetan lan egitea beharrezkoa da, emakumeen parte-hartzea kirolean suspertzeko, genero baldintzarik gabe.

HELBURU E.1

Emakumeak kirolean sartzeko erraztu, kirola praktikatzeko dauden oztopoak ezabatzearen bidez.

Jarduera E.1.1. Berdintasun Politikak Batzordearekin koordinazioa bultzatu.

Jarduera E.1.2. Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak emakumeak kirola egiteko orduan dituzten oztopoei buruzkoak, esaterako: adiskidetzea, hezkuntza, ordutegiak, bultzatutako kirol mota...

Jarduera E.1.3. Kirol Patronatuaren programaren barnean sartu arazo espezikoak dituzten emakumeei zuzendutako kirol-jarduerak: fibromialgia, minbizia, osteoporosi, genero-indarkeriaren biktimak...

Jarduera E.1.4. Kirol eta aisialdi esparruen erabilera egokitu, erabilera orakatua emakumeen eta gizonen artean bermatzeko.

Jarduera E.1.5. Dirulaguntzak ematean lehentasunezko erizpidetzat sartu emakumeek osatutako taldeen sorrera eta sustapena eta kirol jarduerak zeinetan emakumen eta gizonen parte-hartze orekatua ematen den.

Jarduera E.1.6. Kirol ekitaldiak antolatu Aukera Berdintasuneko auziak bultzatzeko.

Jarduera E.1.7. Emakumea eta Kirolari buruzko jardunaldi bat planifikatu.

ARLO ARDURADUNAK:

Kirola, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Hezkuntza, Hazienda eta Gizarte Zerbitzuak.

F. KULTURA ETA EUSKARA ARLOA

Une hauetan, neurri handitan, zalantzan jartzen da kultura-eredu zaharra, eredu platriarkalean oinarrituta, emakumeak ikusezinak bilakatu eta kulturatik urrun edukitzen zituena.

Emakumeen etengabeko agerpenak eremu publikoan eta horien protagonismoak, denboren hasieratik errebindikatuta eta gaurko gizartean gauzatu dena, aldaketa kulturala laguntzen ari dira, emakumeekiko isolamendua hautsiz, zeinak emakumeak esparru pribatuaren bermatzaileak bilakatzen baitzituen.

Kultura eredu berriak oreka eskatzen du publikoaren eta pribatuaren artean pertsona guztientzat, bere sexua edozein dela ere. Gainera, harantzago doa, guzti horren ondorioa baita mendeetan zehar iraun diren

eginkizun tradizionalak sozialki gainditzea, eginkizun horiek dagoeneko ez baitute erantzunik ematen gizartea antolatzeko era berrietan.

Guzti horrek ez du esan nahi oraindik ez dagoela sistema tradizionala androzentrikoa, non sexu-estereotipoak oraindik oso agerian dauden. Hortaz, gizarte benetan berdina eraiki nahi badugu, identitate kulturala eraiki behar dugu pertsonekin errespetuzkoa dena, sexu soslaiarik gabe, emakumeak baldintzatu eta beren gaitasunak baliogabetetzen dituztenak. Horrekin laguntza eman dezakegu pentsamoldeen aldaketan.

HELBURU F.1

Emakumeak kulturaren sartzeko bideak erraztu, zailtzen dituzten oztopoak ezabatuz.

Jarduera F.1.1. Sentsibilizazio kanpainak herritarrentzat, emakumeak kulturara eta euskarara heltzeko gaur egun dauden oztopoei buruzkoak, adibidez: adiskidetzeta, hezkuntza, ordutegiak...

Jarduera F.1.2. Sartu, lehentasunezko erizpidetzat dirulaguntzak emateko orduan, jardueraren kulturalen sormena eta bultzatzea non emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua dagoen.

Jarduera F.1.3. Emakumeen parte-hartzea bultzatu kultura Elkarteetan.

Jarduera F.1.4. Emakumeek historian zehar kulturara eginiko ekarpenak ikustarazi, lehiaketan bidez, hitzaldiak, obrak sustatu, beste obra berri batzuk sortzeko lagundu...

HELBURU F.2

Kulturen arteko jarduerak lagundu, integrazioa, autonomia eta garapen pertsonala eta kolektiboen bitartekoa izateko.

Jarduera F.2.1. Beste kultura eta herri batzuei buruzko jarduerak antolatu, zeinetan emakumeak protagonistak diren.

HELBURU F.3

Emakumeak euskara ikasteko eta erabiltzeko bultzatu.

Jarduera F.3.1. Argibidea udal jarduerari buruzkoa, Euskara emakumeen elkarten artean eta udal zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeekin zerikusia dituztenak.

Jarduera F.3.2. Euskarazko ekitaldiak, emakumeei zuzenduta, bultzatu.

Jarduera F.3.3. Zainketa-zerbitzuen plangintza egin, bai ikasteko, bai Euskaraz egiten diren jardueretarako.

Jarduera F.3.4. Emakume euskaldunek historian zehar eginiko ekarpenak ikusarazi, lehiaketen bidez, hitzaldiak, obrak lagundu, beste obra berri batzuk sortzeko lagundu...

ARLO ARDURADUNAK:

Kultura eta Euskara, Emakume eta Berdintasun Batzordeak.

ARLO INPLIKATUAK:

Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

G. OSASUN ARLOA

Osasunaren prebentzioak, tratamenduak eta zainketak generoa dauka, oso eragin ezberdina baitauka emakumeengan eta gizonengan, eta eragin ezberdin hori kontuan hartu behar da

Nabarmena da ziklo biologikoak eta ezaugarri fisikoak ezberdinak direla sexuen artean.

Gainera, eremu pribatuko etxeko lanen banaketa ezberdina, emakumearen papera familia osoaren zaintzailea izainik eta jardunaldi bikoitzak eta hirukoitzak berekin ondorioak eraman edota eragiten dituzte zeinak orokorrean gizonek ez dituzten pairatzen.

Ezin da alde batera utzi ere emakumeen aurkako indarkeriaren eragin fisikoak zein psikologikoak.

Osasunak, genero ikuspegitik, erantzuten die ez bakarrik berariazko alderdi fisikoei, baizik eta alderdi psikologikoei ere. Indarkeria egoeren prebentzioa osasun arloa ere barne hartzen du.

HELBURU G.1

Osasun sistema genero ikuspegiarekin bultzatu.

Jarduera G.1.1. Hezkuntza-programak osasunerako planifikatu emakumeei zuzenduta, adin-taldearen eta egoeraren arabera: familia-plangintza, buru-osasuna, higiene-ohiturak, farmakologiaren kontrola, droga-menpekotasunak, denboraren erabilera, osasuna eta bizi-kalitatea,...

Jarduera G.1.2. Prestakuntza-plan bat diseinatu emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, osasun zentroetako langile guztiei zuzenduta, beste erakunde batzuekin koordinazioan.

Jarduera G.1.3. Bultzatu eta lagundu emakumearen arreta-zerbitzua berreskuratzeko, COFES zaharra.

Jarduera G.1.4. Berriazko programak garatu, osasun arriskuan dauden emakumeentzat, elkarteekin eta GKEekin lankidetzan.

Jarduera G.1.5. Sentsibilizazio kanpainak diseinatu tratu txarrak antzemateko, herritarrei zuzenduta, tolerantzia 0 bultzatuz.

Jarduera G.1.6. Maiatzaren 28a ospatu, Emakumeen Osasunari buruzko Nazioarteko Eguna, Emakumea eta Osasunaren jardunaldi baten bidez eta beste ekitaldi batzuk emakumeen osasunari harreta berezia bultzatzen dutenak.

Jarduera G.1.7. Sentsibilizazio jarduerak planifikatu (jardunaldiak, tailerrak, dokumentazioa argitaratu...) lana emakumeengan sortzen dituen faktore psikosozialei buruzkoak, genero ikuspuntutik, lan-gaixotasuntzat hartu ahal izateko eta ez gaitz arrunta balira.

ARLO ARDURADUNAK:

Osasun, Emakume eta Berdintasun Batzordea,

ARLO INPLIKATUAK:

Lanerako Prestakuntza eta Enplegua, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

H. INGURUMEN ARLOA

Emakumeek badute harreman ezberdina bizi diren inguruarekin eta beren inguruan elkarreragiten dute, produkzio- eta ugalketa-lanak direla eta, lan horiek egin ohi baitituzte historian zehar.

Beijingo Emakumeen IV. Mundu Konferenzian bildu zen bezala, emakumeen eta gizonen parte-hartze berdina kontuan hartu gabe ez dago epe luzera emaitzak izateko aukerarik garapen iraunkorreko politketan.

Eta garapen iraunkorra da ingurunearekiko eta bizi kalitatearekiko errespetua bermatzen duen era bakarra, bai gaur egun bizi garenontzat, bai etorkizuneko belaunaldientzat.

HELBURU H.1

Ingurumenaren politikak diseinatzean, garatzean eta gauzatzean genero ikuspegia sartu.

Jarduera H.1.1. Mekanismoak sortu emakumeen parte-hartze eraginkorra ahalbideratzeko udaleko ingurumen politikak egitean eta garatzean.

Jarduera H.1.2. Genero ikuspegia sartu Agenda 21aren garapenean.

HELBURU H.2

Ssexismoa eta antropozentrismoa gainditu, daukagunak naturarekiko harremanean.

Jarduera H.2.1. Hausnarketarako eta kritikarako guneak bultzatu honako dualismo hierarkizatu hauei buruzkoak: Natura/Kultura,

Emakumea/Gizona, Gorputza/Burua, Afektibitatea/Arrazionaltasuna, Materia/Espiritua, gaur eguneko gizartean nagusi direnak.

Jarduera H.2.2. Mespretxatutako eta baztertutako elementuak aldarrikatu, "emakumezkotzat" hartzen direlako, esaterako: afektibitate-harremanak, errukitasuna, materia, natura,... emakume eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko lagundu, kulturaren baita naturaren partaideak ere baitira.

HELBURU H.3

Ikerketak hedatu emakumeen osasuna ekologiarekin harremanetan jartzen dutenak.

Jarduera H.3.1. Emakumeen taldeei eta elkarteei laguntza eta informazioa eman kutsadurak horien osasunean eragiten dituen arazoak ezagut ditzaten.

Jarduera H.3.2. Arazo horiek kontuan hartuko dituzten argitalpenak bultzatu.

ARLO ARDURADUNAK:

Ingurumena, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Osasuna, Hezkuntza, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

I. GIZARTE ZERBITZUAK ARLOA

Desoreka soziala dago bizi-kalitatearen mailan mendebaldeko gizarteetan: badago pertsona gehiengo bat bizi-baldintza erosoak bermatuta duena (ezberdintasun nabariekin horien artean baina seguruak) eta beste batzuk, berriz, aukerarik gabe edota zailtasun handiekin oinarritzko behar sozialak asetzeko.

Ez da kasualitatea bigarren multzo horretan daudenak emakumeak izatea. Gure gizartean nagusia den patriarka-sistemak pertsonak kokatzen ditu menderatze harremanetan (gizonak) eta mendetasunean (emakumeak) bakarrik sexu batekin edota bestearekin jaiotzeagatik. Sistema honek kokatu ohi ditu emakumeak mendetasun ekonomikoan eta afektiboak gizonekiko. Horregatik, hausturak, alarguntzak edo gizonaren enplegu-kolokatasuna gertatzen direnean, familian agerian geratzen da emakumeen diru-sarreraren eza eta hori dela eta, emakumeen ezegonkortasuna eta gizarte-esklusioa.

Emakumeen kolektiboaren gizarte-esklusioa izateko arriskuak neurri handi batean zerikusia dauka lan-merkatuan sartzeko dauden baldintzekin eta ze baldintzetan ere sartzen den. Badakigu emakumeek lan-diskriminazioak, mailaz igotzeko bereizketak, prekarietatea edota langabezia pairatzen dutela eta adiskidetzearen zama eramaten dutela, horrek berekin dakarrenarekin lanpostu bat aurkitzeko eta mantentzeko orduan.

Ezinbestekoa da mekanismoak ezartzea ezberdintasun hauek, bai sozialak bai generorenak, poliki-poliki desagertar daitezela.

HELBURU I.1

Emakume eta Berdintasun Politikak eta Gizarte Zerbitzuak Batzordeen arteko koordinazio-mekanismoak bultzatu, emakumeei zuzendutako jarduerak integratzea errazteko esku-hartzearen eremu ezberdinetan.

Jarduera I.1.1: Koordinazio-protokoloa egin, bi arloen artean, emakumeengan eragina duten arazoak eta eskaeren gaineko informazioa biltzeko.

HELBURU I.2

Gizarte-esklusio egoeran edota arriskuan daude emakumeen egoera hobetu.

Jarduera I.2.1. Sentsibilizazio kanpainak planifikatu, horietan emakume ijitoak protagonista izanen direlarik ikasten, lan egiten,... erreferentzia-eredua izan daitezen ijitoen arrazako beste emakume batzuentzat, baztertze-arriskuan daudenak, baita ere estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko eredua izateko Lizarrako gainontzeko gizartean.

Jarduera I.2.2. Emakume ijitoak laguntzea hezkuntza arautuan sar daitezen, baita ere lanerako eta etengabeko prestakuntzetan.

Jarduera I.2.3. Sentsibilizazio jarduerak egin emakume etorkinen errealitateari buruzkoak, estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko asmoz, kultura ezberdinen bizikidetzaren balore aberasgarria ezagutzera emanaz.

Jarduera I.2.4. Emakume etorkinen berezko baliabideak eta gaitasunak bultzatu horien presentzia bermatuz prestakuntza eta garapen pertsonalaren jardueretan.

Jarduera I.2.5. Gizarteratzeko programak bultzatu etorkin emakumeentzat, gizarte-esklusio arriskuan daudenak (lanean sartzeko, etxebizitzera, prestakuntzara...), genero ikuspegia kontuan hartuko dute.

Jarduera I.2.6. Kolektibo horien asoziazionismoa bultzatu.

Jarduera I.2.7. Kolektibo horien emakumeak prestatu artekaritza kulturalaren trebezetan.

HELBURU I.3

Emakume alargunen, familiaburuen, edota familia-karga dutenen egoera hobetu, eta gizarte-esklusioan daudenak edo pairatzeko arriskuan aurkitzen direnak.

Jarduera I.3.1. Informazio eta sentsibilizazio jarduerak egin jendeari orokorrean zuzenduta, emakumeen kolektibo horien errealitatea ezagutarazteko, eta baztertzea eta estigmatizazioa sahiesteko.

Jarduera I.3.2. Gizarte-integrazioaren programak bultzatu (Lanera sartu ahal izatea, etxebizitzara, prestakuntzara...) genero ikuspegia kontuan hartuko dutenak.

Jarduera I.3.3. Talde hauentzat soldata duina lortzeko zuzendutako jarduerak sustatu.

Jarduera I.3.4. Beren eskubideak defenditzen dituzten elkarteak lagundu.

HELBURU I.4

Prostituzioan diharduten emakumeen eskubideak ezagutu eta bermatu.

Jarduera I.4.1: Informazio eta sentsibilizazio jarduerak egin jendeari orokorrean zuzenduta prostituzioan ari diren emakumeen errealitatea ezagutarazteko eta horien baztertzea eta estigmatizazioa sahiesteko.

ARLO ARDURADUNAK:

Gizarte Zerbitzuak, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Lanerako Prestakuntza eta Lana, Osasuna, Hezkuntza, Kultura, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

J. HIRIGINTZA ARLOA

Emakumeek eta gizonek eremu publikoa eta pribatua erabiltzen dute oso era ezberdinean eta ikuspegi anitzak erantzunez. Ez bakarrik gizartean dituzten eginkizunengatik, baizik eta baliabideei heltzeko duten ezberdintasunengatik ere.

Emakumeak oinez joan ohi dira, edota garraio publikoa erabiliz. Baita ere arkitektura-oztopoek eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino. Eta gaur egun dauden familia mota ezberdinek ondorioz ekarri dute etxebizitza diseinatzeko era berriak.

Emakumeen aurkako indarkeriak zerikusia dauka, kasu anitzetan, esparruarekin. Argiaren eza, leku ezkutua edota baztertuak, lurpeko pasabideak edota bide zeharkaezinak zamak dituzte emakumeentzat, eragiten dute hiriak eremu arriskutsuak izatea emakumeentzat.

Hiri iraunkorra eta kalitate onekoa nahi badugu, ezin dugu populazio erdiaren egoera alde batera utzi.

HELBURU J.1

Hirigintza-politikak emakumeen beharretara egokitu.

Jarduera J.1.1. Emakumeen parte-hartzea integratu hirigintza-Arloko politiketan.

Jarduera J.1.2. Udaleko hirigintza-proiektuak egin genero ikuspegiarekin.

Jarduera J.1.3. Hiri-esparruaren konfigurazioa bultzatu zeinak emakumeen behar eta erabiltzeko era ezberdinak kontuan hartuko dituen.

Jarduera J.1.4. Hiriko arkitektura-oztopoak ezabatu, emakumeen mugikortasuna zailtzen dutenak eguneroko bizitzan.

Jarduera J.1.5. Ekitaldiak antolatu (jardunaldiak, hitzaldiak...) hirigintzari eta generoari buruzkoak.

Jarduera J.1.6. Herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak planifikatu, hiria emakumeentzat eta gizonentzat gaiari buruzkoak.

Jarduera J.1.7. Ikerketak egin emakumeen beharrak eta proposamenak bilduko dituztenak, hiriko diseinuaren hobekuntzari dagokionean.

HELBURU J.2

Hiriko segurtasuna handitu emakumeentzat.

Jarduera J.2.1. Kaleetako eta plazetako argia handitu, emakumeentzako toki arriskutsuak kendu.

Jarduera J.2.2, Hirigintza-oztopoak pixkanaka kendu: pasabideak, tunelak, eremuak etheen artean, ... Lizarrako emakumeen segurtasunerako.

Jarduera J.2.3. Hirigintza-proiektuak diseinatu pertsona guztien segurtasuna zaintzeko, horretarako emakumeen ekarpena kontuan hartuz.

Jarduera J.2.4. Garraio publikoa hobetu eta bultzatu, ordutegiak, maiztasunak eta distantziak handituz, emakumeen beharrei erantzuteko, bai lanekoak, bai familiarrak, baita aisialdi-beharrak ere.

HELBURU J.3

Lizarra hiriko begirada bat egin genero ikuspegiarekin.

Jarduera J.3.1. Lizarrako ibilbideekin jarraitu, hiriko emakumeekin loturarik duen antzinako bizitza eta gaur egunekoa erakutsiz.

Jarduera J.3.2. Hiriko turismoa bultzatu, bertako historian eta bizitzan emakume esangutsuen irudia nabarmenduz.

ARLO ARDURADUNAK:

Hirigintza, Emakume eta berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Lanerako Prestakuntza eta Enplegua, Hezkuntza, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

K. HIRITARRAK BABESTEKO ARLOA

Hiriek eta herriek problemak izaten dituzte emakumeentzat. Hirigintza-diseinuak, bizi garen sistema androzentrikoaren emaitza, eragin kaltegarria dauka emakumeengan. Eta etxea, beren etxea, ez da babes handia emakume anitzentzat indarkeriaren aurka.

Emakumeen eta gizonen ezberdintasunak dauden bitartean, indarkeria iraunen du. Gure borondatearekin eta ahaleginarekin errealitate hau alda dezakegu.

HELBURU K.1

Genero ikuspegia aplikatu Arloko programa guztietan.

Jarduera K.1.1. Prestakuntza bat planifikatu, genero ikuspegiarekin, emakumeen aurkako indarkerian espezializatua, Arloko langile guztiei zuzenduta.

Jarduera K.1.2. Sentsibilizazio jarduerak diseinatu herritarrentzat, tolerantzia zeroari buruzkoak jotzaileen aurrean.

HELBURU K.2

Koordinazioa sendotu Berdintasun Politikak Batzordearekin.

Jarduera K.2.1: Koordinazio protokoloa egin, bi arloen artean, emakumeengan eragina duten arazoan eta eskaeren gaineko informazioa biltzeko.

ARLO ARDURADUNAK:

Hiritarrak Babesteko Arloa, Emakume eta berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

M. GAZTERIA ARLOA

Nabaria da XX. mendean barna arras aldaketa garrantzitsuak gertatu direla gure gizarteko emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasuna aitzina egitean. Emakumeen belaunaldi berriak eremu legal batean hazi dira, zeinean sexuen arteko berdintasunaren eskubidea babesten den.

Gaur egun emakume gazteak ez dira diskriminaturik sentitzen beren bizitzaren garai horretan. Egoera aldatzen da nor bere buruaren jabe egiten den ahala eta lehenbiziko lanera heltzean, parte-hartze politikara eta sozialera, ...

Emakume gazteek autonomia osoko izakiak izatearen beren eskubideen jakinaren gainean egon behar dute, baita feminismoak izan duen garrantzi historikoarena ere, eskubide hori mendebaldean lortzeko.

Baita ere, neskek eta mutilek segitzen dituzte errepikatzen menderatze-mendetasun harreman patriarkalak, betiko familia-, eskola- eta eredu soziala iraunaraziz. Gizarte benetan berdinarenean etorkizunak bere

gazteriaren konpromisoa behar du, aldaketa beharrezkoa eraman ahal izateko eta erantzukidetasuna eta zuzentasuna giza-harremanetan presente egotea lortzeko.

HELBURU M.1

Emakumeen papera bultzatu gazte elkarteetan.

Jarduera M.1.1. Topaguneak antolatu gazte elkarteetako emakumeen egoerari buruz hausnartzeko

Jarduera M.1.2. Gazte elkarteak sentsibilizatu genero ikuspegia horien jardura guztietan sartzeko beharraren gainean.

HELBURU M.2

Genero ikuspegia sartu udaleko gazte jarduerak hautatzean eta programatzean

Jarduera M.2.1. Diagnostiko bat egin Lizarrako emakume gazteen errealitateari buruzkoa, geroago jarduerak garatzeko zeinek kontuan hartuko dituzten emakumeen beharrak eta eskaerak.

Jarduera M.2.2. Eduki ez sexistak erabili gazte jarduerak egitean.

Jarduera M.2.3. Gazteen aisialdia programatu nesken eta mutilen arteko interes ezberdinei jaramon eginez.

Jarduera M.2.4. Aisialdiko monitoreak Aukera Berdintasunean prestatu, aisialdiko jardueretan nesken eta mutilen parte-hartzea bultzatzeko sexu-baldintzarik gabe.

Jarduera M.2.5. Sentsibilizazio jarduerak genero indarkeriaren aurka Lizarrako gazteriarentzat.

Jarduera M.2.6. Orientabidea Lizarrako gazte-elkarteei bere aisialdi-jarduerak genero ikuspegitik antola ditzaten.

Jarduera M.2.7. Gazteen ekitaldiak bultzatu eta lagundu sexu estereotipoak hausteko lagunduko dutenak.

HELBURU M.3

Emakume gazteen agerpena erraztu Udaleko Berdintasun Batzordean.

Jarduera M.3.1. Gazteria arlotik hiriko emakume gazteak deitu parte hartzera etor daitezzen emakume gazteei buruz urtero Berdintasunerako Politikak Batzordeak antolatuko duen batzar espezifikora.

HELBURU M.4

Gazteria zainketaren erantzukidetasunean inplikatu eta etxeko lanak egiteko.

Jarduera M.4.1. Jarduera ezberdinak antolatu zainketaren eta etxeko lanen erantzukidetasunaren beharrari buruz, komiki lehiaketaren bidez, marrazkiak, kontakizun laburrak,...

HELBURU M.5

Lizarrako emakume gazteengan eragina duen eguneroko indarkeria ikasarazi, bai esparru publikoan bai pribatuan.

Jarduera M.5.1. Materiala prestatu elkarte ezberdinei banatzeko eta gazteria sarritan joaten den lekuetan, tratu txar sexistak detektatzeko argibidea eman eta erabil daitezkeen baliabideei buruz ere.

Jarduera M.5.2. Emakumeen aurkako indarkeria salatzen sentsibilizazio kanpainak egin, eta kanpaina hauek prestatzeko hiriko gazteen elkarteak inplikatu.

HELBURU M.6

Indarkeriaren prebentzioa landu eta gatazken konponketa beste pertsonarekiko errespetuan oinarrituta.

Jarduera M.6.1. Gatazka konpontzeko prestakuntzaren plangintza egin Lizarrako gazteriarentzat.

ARLO ARDURADUNAK:

Gazteria, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hazienda eta Zerbitzu Orokorrak.

N. HAZIENDA ARLOA

Europar Batasunak argi eta garbi definitu du bere borondatea politika publiko guztiak zuzen daitezen gaur egungo emakumeen aurkako diskriminazioa ezabatzeraz. Berdintasunaren aldeko konpromisoak, beste deus baino lehen zuzentasunaren printzipioan sorburua duena, oinarri garrantzitsua ekonomia-eraginkortasunean dauka.

Hortaz, Europako Batzordeak, 2004ko Txostenean, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa, nabarmentzen du: *"Europako eskulanaren produkzio-potentziala zeharo aprobetxatua izan behar da Lisboako Estrategiaren helburu orokorrei heltzeko, hau da, 2010. urterako lortzea **Europako ekonomia izan dadila ezagueran oinarritutko munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena, ekonomia-hazkunde iraunkorraren gaitasunarekin, lanpostu gehiagorekin eta hobegoekin eta kohesio sozial handiagoekin.** Portu onetara heltzeko, nahitaezkoa da emakumeen parte-hartzea bultzatzea lan-merkatuan eta*

genero-ezberdintasunak ezabatzeko ahaleginak egitea bizitzaren eremu guztietan."

Udal baten politika fiskalak eta aurrekontuek erabateko laguntza eman dezakete helburu horiek lortzeko edo oztopo izan helburu horiek zailduko dituztenak.

HELBURU N.1

Udalaren aurrekontu-politika Nazioarteko Itunetara eta Arauetara egokitzea bultzatu, Aukera-Berdintasunari dagokionean.

Jarduera N.1.1. Genero-adierazleak sartu sortzen diren agiri guztietan.

Jarduera N.1.2. Dauden lankidetzeta-mekanismoak indartu Berdintasun Politikak Batzordearekin.

HELBURU N.2

Gogoeta egin udaleko politika fiskalaren genero-joerei buruz.

Jarduera N.2.1. Jarduerak, mintegiak, ... egin, genero ikuspegia udaleko politika fiskaletan sartzeari buruzkoak.

Jarduera N.2.2. Aipatu politikak berbideratu, horiek Aukera Berdintasuneko helburuekin bat etortzeko.

Jarduera N.2.3. Genero ikuspegia udal aurrekontuetan sartu.

HELBURU N.3

Lizarran emakumeek bultzatutako empresa-ekimenak lagundu.

Jarduera N.3.1. Lizarrako emakumeek bultzatutako empresa-ekimenak laguntzeko politika planifikatu, honako jarduera hauekin: hobariak edota atzerapenak udal tasak ordaintzeko orduan eta beste batzuk.

ARLO ARDURADUNAK:

Hazienda, Emakume eta Berdintasun Batzordea.

ARLO INPLIKATUAK:

Lanerako Prestakuntza eta Zerbitzu Orokorrak.

7. Jarraipena eta ebaluazioa.

Jarraipena.

Emakume eta berdintasun batzordetik fitxa-eredua emanen da, genero ikuspegia kontuan hartuko duena, datu guztiak biltzeko arlo bakoitzean egingen diren jardueri buruzkoa, eta horretan sartzen dira bai Plana martxan jartzeko egingen diren guztiak, bai beste guztiak, *transversalitatea* ezartzeko, agiri guzti honen oinarritzko zutabea.

Aipatu fitxan agiri horretan bildu behar diren adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak ezarriko dira.

Sei hilabeteko segimenduak egingen dira arlo bakoitzean eginiko edo burututako jarduerak zehazteko, Plana garatzearen aldekoak.

Jarraipen-fitxa.

- Arloa:
- Erantzulea:
- Jarduera:
- Hasteko data eta iraupena:
- Lankidetzaz beste arlo batzuekin:
- Lankidetzaz beste erakundeekin:
- Landutako Planaren Helburua:
- Jardueraren edukinak:
- Erabilitako baliabide teknikoak:
- Aurrekontua:

□ Parte-hartzaileak: Emakumeak Gizonak

□ Balorazioa:

- Lorpenak.
- Zailtasunak.
- Hobetzeko proposamenak.

Ebaluazioa.

Emakume eta Berdintasun Batzordeak urteko ebaluazioak egingen ditu, arlo bakoitzak egiten dituen fitxetan oinarritutakoak. Jardueren lorpenak ezagutu nahi dira, zailtasunak, hobetzeko proposamenak eta helburuak lortzeko balizko aukerak, ahaleginak zehazteko erresistentzia gehien aurkezten dituzten jardueretan eta aurrera joanez Berdintasunaren lorpenean.

Urteko ebaluazio horiek baloratzeko organo erantzulea eta jarduerak berbideratzeko ere, beharrezko izanez gero, Emakume eta Berdintasun Batzordea izanen da.

Planaren iraunaldiaren 4 urteak igaro ondoren azkeneko ebaluazio bat egingen da, urteko ebaluazio guztiak, emaitzak eta Aukera Berdintasunak herritarrengan izandako eragina bilduko dituen.

Aecuo-k eskerrak ematen dizkie eskuzabaltasunez laguntza eman duten lagun guztiei Lizarrako Hiriko I. Aukera Berdintasuneko Planaren Ebaluazioa egitean eta II. Aukera Berdintasuneko Plana prestatzean.